



Leaburu-Txaraman, Anoetan eta Zizurkilen **hilaren 13an** egingo dira azoka bereziak

Zizurkilen XVI. Azoka Berezia izango da, Anoetan Euskal Jaia egingo dute eta Leaburu-Txaraman V. Barazki eta Artisau Azoka antolatu dute 6

Iruñeko San Fermin lehiaketa irabazi ostean, diskoa grabatuko du **Kalean txarangak**

Txaranga tolosarra datorren udaberrian grabazio estudioan sartuko da; beraiek sortutako kantuak eta bertsoak grabatuko dituzte lehen diskoan 7



tolosaldeko

ataria

galtzaundi
GALTZAUNDI

TOLOSALDEKO **hitza** info

Txolarre
Irratia

Asteazkena, 2013ko urriaren 9a. 1. urtea. 4. zenbakia. www.ataria.info



Guardia Zibilak kalamu landare guztiak moztu eta kendu ditu negutegietatik. I. TERRADILLOS

Kalamua edukitzea egotzita **bost atxilotu**

Guardia Zibilak Zizurkilgo Otazu baserrian 634 kalamu landare atzeman ditu; jabearen ustez, ez dago deliturik 2

LANIK GABE DAUDEN GAZTEEN ARTEAN, **GIZONEZKO GEHIAGO**

Gipuzkoako langabezia tasa handiena duen hirugarren eskualdea da Tolosaldea, abuztuko datuen arabera; 1.542 gizonetzko eta 1.761 emakume daude langabetuen zerrendan. 4-5



Leire Otaegi Amasa-Villabonako enplegu zentroa

«Lana bilatzeko edo prestakuntza izateko laguntza eskaintzen dugu»

tolosaldeko
ataria

ataria
internet

ataria
prentsa

ataria
irratia

Egin zaitez atarikide!

943-65 56 95
ataria@ataria.info

Zizurkil



«Labore partekatua ez da delitua»

Kalamu landareak eraman ditu Guardia Zibilak baserri batetik eta jabeei osasun publikoaren aurkako delitua egotzi diete

INÍGO TERRADILLOS

Guardia Zibilak bost pertsona atxilotu ditu Zizurkilen, eta osasun publikoaren aurkako delitua egotzi diete. Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariak jakinarazi duenez, 634 kalamu landare aurkitu dituzte Zizurkilgo Otazu baserriaren negutegian, «gehienak, bi metro baino gehiagoko garaiera zutenak». Landereez gain, 17 kilo kalamu lehor, hiru eskopeta, errebolber bat edota munizioa ere konfiskatu dituztela adierazi dute. Atxilotu eta negutegiko jabeek, beren aldetik, «gogor» salatu dute atxiloteta, eta euren errugabetasuna defendatu dute, bertan zeuden landareak Bilboko Tare el-

karterenak zirela eta guztia legea errespetatuz zutela argudiatuz.

Espainiako Gobernuaren ordezkariak azaldu duenez, «negutegia 24 orduz eskopetaz armaturiko pertsonen eta zakurrez zainduta zegoenez», Gasteiztik etorritako GAR (Akzio Azkarreko Taldea) konpainiak lagunduta burutu zuten operazioa iragan irailaren 26an. Halaber, iturri berdinak adierazitakoaren arabera, txakur zaindarien polizien presentzia ohartarazi zuten, eta zenbait tiro egin ziren gero poliziek atzeman zuten eskopeta batekin.

Operazioan bost lagun atxilotu zituzten: Baserriaren jabea, bere iloba, baratzetako langilea, zainketaz arduratzen den pertsona eta une

horretan negutegira lapurtzera joandako pertsona bat. Bada, hiru lagun epailearen aurretik igaro dira, eta baserriaren jabea eta ustezko lapurra geratuko lirateke deklaratzeko. Hilaren 15ean dute horiek hitzordua.

Elkarte bati alokatuta

Otazu baserriko jabearen iloba Joseba Larrañaga da atxilotu zutenetako bat, eta «gogor» salatu du duela bi aste jazo zen gertakaria: «Irailaren 26a zen, eguerdia. 43 guardia zibilek inguratu zuten baserria. Indarrez, bilurrak jarri zizkiguten, etxea goitik behera arakatu zuten, ateak hautsiz, eta hori guztia ezer ere ez aurkitzeko: eskopeta bat, jaurtigairik gabeko errebolber bat eta semeak erabiltzen duen haurrentzako uztai bat». Osabak zituen 600 euro eta berak zituen 400 euro eta, «arakatzen ari ziren bitartean topatu zituzten gustuko objektuak» eraman zituztela gehitu du Larrañagak.

Guardia Zibilak baserrian agerpe-

na egin zuen une berean, lapurretaregitera joan ziren hiru pertsona negutegian zeudela adierazi du baserriko jabearen ilobak: «Askotan gertatu zaigu, eta azken boladan askoz ere gehiagotan landareak lapurtzera sartzen direla; 4x4 auto batekin gerturatu ziren, eta hiru lagunetatik bat harrapatzea lortu zuten». Erregistroaren ostean, eta landareak eramatearekin batera, atxilotuta eraman zituzten, inputatuak. Larrañagak azaldu moduan, deklaratu aurretik, bi egun igaro zituzten espetxean inkomunikaturik.

Bilboko Tare elkarteari alokatzen diotela negutegia diote Otazu baserrian. «Bertako landareak eurenak dira, beraz, kalamuaren jabeak atxilotu beharko lituzteke, eta ez gu. 300 bazkide baino gehiago dira elkartean, eta landare horiekin urte osorako behar dutena banatzen dute beraien artean». Bada, orain arte, inoiz ez dutela inolako arazorik esan azaldu du Joseba Larrañagak. «Urtebete daramagu elkarte hone-

kin, eta aurretik beste elkarte batek zuen alokatuta. Guztia legeaz dago, Eusko Jaurlaritzaren zibiluekin, eta hori ere esan genien guardia zibilei, baina horrek ez zuela ezertarako balio erantzun ziguten».

Absoluzioa eta eramandako guztia itzultzea eskatu dute, baina, itzuliz gero, kalamuaren kasuan, «dena ustelduta» egongo dela uste dute.

«Ez dago deliturik»

Bestalde, Larrañagaren abokatuak, Jon Razkinek adierazi duenez, Tare Eusko Jaurlaritzan elkarte moduan erregistratuta dago, «legez», eta epaileak dagoeneko informazioa eskatu dio euren jardunaren inguruan. Osasun publikoaren aurkako delituari dagokionez, ez duela zentzurik esan du, «labore partekatua ez baita delitua».

Operazioan entzun ziren tiro hosten inguruan, Otazu baserriko lau inputatuek ukatu egin dute tiroak beraiek eginak izan zirenik. Abokatuak adierazi duenez, tiro bat entzun ostean hiru tiro egin zituzten guardia zibilek. «Larrañaga sendiak dioenez, ehizean zebilen norbaitek eginak edo lapurretan joandakoenak dira tiroak», azaldu du Razkinek.

Bestalde, Guardia Zibilak emandako datuen arabera, tona eta erdi kalamu jaso dute, baina abokatuak gezurtatu egin du datu hori, «ezinezkoa baita hartu dituzten landareetatik hori guztia jasotzea». «Guztia hartu dute kontuan pisatzerakoan, adarrek, sustraiak... eta horregatik hartu du hainbeste pisu».



**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

IRAGARKI LABURRAK

SALGAI:
Lokala salgai lbarran:lbarran 130 m2-ko lokala salgai, okindegi, taberna edo jatetxerako, terraza bikainarekin.
Interesatuak: 636 143 514.

LAN BILA:
Ettxeko lanetarako: goizetan, 08:00etatik 14:00etara etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia haundiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka.
Interesatuak: 943 696 882 / 606 521 992.

Gorka Igartua • Goi Mailako L.H. Institutuko zuzendaria

«Prestakuntza berriak eta proiektuak»

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak ikasturtea proiektu berriekin jarri du martxan

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak, ikasturte berria hasi du, eta bere zuzendaria den Gorka Igartuak, prestakuntza eskaintza eta proiektu berriak adierazi dizkio 'ATARIA'-ri.

Aurtengo ikasturtean zer ikasketa mota eskaintzen dituzue Goi Mailako lanbide heziketan?

Ikasturte honetan 400 ikasle pasa ditugu, 10 ziklo formatiboetan banatuta. Eskaintza anitza, familia industrialak eta osagarriak tarteko, ikasleek aukeraketa egiterakoan, askotan bi ziklo osagarri egin eta Kualifikazio Profesionala hobea lortzen dute, bi teknikan prestatu eta lan ezberdinetarako Polibalentzia bilatuz. Arlo industrialak ondo landuta ditugu eta gure erronka merkataritza ere lantzea da. Horretarako ziklo berria lortzea dugu helburu, Merkataritza Jarduerak ikasketen bidez, gure denda eta komertzioari, tekniko kualifikatuak eta gaitasun berriak dituzten pertsonak prestatuko ditugu, gaur egun, hain garrantzitsuak direnak: harrera, harremanak, erosketak, bilketa, marketin, kontabilitatea eta IKT teknologia berrietan trebatua.

Ikasleen irakaskuntza hobetzeko zein metodologi erabiltzen duzue? Batzuetan kontrajarriak dira, ardura eta erantzukizun handia sentitzen baita. Ondo erantzun nahia, guztion nahiak ase nahia... Horrek guztiak lan handia eskatzen du. Langile, gurasa, ikasle, eta ikasle ohiengana jo dugu; erantzun oso ona jaso dugu, eta nahia eta kezka guztiekin ondo aritzea da.

Ikasleen irakaskuntza hobetzeko zein metodologi erabiltzen duzue? Gure ikastetxean metodologia berri-tzaileak aspalditik erabiltzen ditugu,



Tolosako Goi Mailako Institutuan lanbide heziketa egiten ari diren hainbat ikasle. ATARIA

arazo errealean eta proiektuetan oinarrituz, gaia aztertu eta soluzio egokiena emanaz. Ikasleen parte hartze aktiboa bultzatuz, jarrera, ardura, erosketa, bilaketa, talde-lana eta azalpenak emanaz. Aurtengo bereziki, TKNKA, Berrikuntza Zentroan eta beste 4 ikastetxeekin elkarlanean ari gara. Klaseen antolaketa ikasleek egin behar dituzten proiektuen arabera egiten da, ikasleak ikasi behar duenaren arabera irakasle-taldeak, gai berdina lantzeko jarduerak egiten dituzte. Ikastetxez kanpoko proiektuak nahi ditugu, beraz zenbait lantegi eta erakundeekin akordioak sinatuz, elkarlana eta parte hartzea bultzatzen ari gara.

Beste prestakuntza motarik baduzue?

Ikastetxeko irakaslegoa eta baliabideak erabiliz, inguruko lantegi, langile eta langabetuen trebatzea da gure beste lanetako bat, behar dituzten gaiak ikasteko zenbait ikastaro ezberdin antolatzen ditugu. Lehiberri, Lanbide eta Tolosaldea Garatzenekin batera, benetako eskaerak jaso, aztertu eta diru laguntzak lortuz gero, dohan diren prestakuntza plana antolatzen dugu. Trebatze berrien artean, Garabiak eta

Karretillak dira azkenak, lehenik gure ikasleei eta ondoren beste langile eta langabetuei prestakuntza egokia ematen diegu, hastapenak, segurtasuna, maneiatzea eta praktika errealek burutuz. Gure ikasleentzat eta lan mundura sartu nahi dutenentzat gehigarri oso interesgarria iruditzen zaigu.

Ikasleen kolokazioa eta lan intzertsioa nola bultzatzen duzue?

Lanbide Heziketa sailburuordetzak, duela bi urte *Alternatziako* pres-taketa egiteko aurkeztu zuen eta

«Langile eta langabetuei prestakuntza egokia ematen diegu»

gure ikastetxeak berehala ikusi zuen proiektu hau ikasleen intzertsioa burutzeko herraminta oso egokia zela. Une honetan gure ikastetxeko 36 ikasle daude proiektu honetan (HEZIBI). Zikloa egiterakoan lehen urtean gure ikastetxean eta bigarren urtean ikasten eta lanean diardute, urte bateko kontratua eta dagokion soldata bat jasoz.

Lantegian lan egiten ikasten dute beraz.

Bai, ikasleak ikastetxean formatzen dira eta lantegian une berean, beste gaitasun teknikoak eta zeharkakoak lantegian bertan jasotzen dituzte, benetako errealitatea ezagutuz.

Enpresentzat ere aberasgarria izango da.

Enpresentzat abantailak ugariak dira. Behar teknologikoak garatzeko ikaslea formatzen dituzte, errelebo generazionala gauzatzea errazteko, tutore lanak eta gizarte segurantzarako diru laguntzak... Baina ikasleentzat ere badira abantailak. Urte bateko kontratu laborala izatea eta behin betiko kontratua dituzte. Baina aldi berean, enpresaren errealitatea, hau da, funtzionamendua, lan praktikoak, langileen arteko harremanak, lan baldintzak, segurtasun arauak,... ezagutzeko aukera eta gaur egun enpresak eskatzen dituen zeharkako kompetentziak (talde lana, sormena eta berrikuntza) lantzeko aukera dute. Urteko 1.200 ordu inguru enpresan egingo dituzte lan eta 500 ordu inguru ikastetxean. Azkenik, hilero, hitzarmen laboralararen arabera soldata kobratuko lukete.

Tolosako ikastetxeak beste zein zerbitzu ditu?

Gure ikastetxeko eginkizuna Lanbide Heziketetan prestatzea denez gero, gure indar eta zerbitzu guztiak, arlo honetara bideratuta daude: Lantegiekin eta erakundeekin akordioak sinatu, aholkularitza eman, proiektuetan parte hartu, arazoak ezagutu eta irtenbide zuzenak eskaintzen ditugu. Gure ateak irekita daude guk ikasteko, eta baita edonori laguntzeko ere, beraz nahi duzuenok badakizue non gauden, etorri konpromisorik gabe.

Azken aholku bat emateko?

Gaur egungo langileen profila aldatu da, beraz langile kualifikatuez gain, pertsonen arteko harremanetan, lan-taldeetan aritzea eta jarrera irekia izatea beharrezkoa da. Ikasteko, mugitzeko eta hizkuntzak, pertsona eleantitzak behar ditugu, hauek dira gure eguneroko jardunean bultzatzen ari garen gaitasunak.

@ Tolosako Santa Lutzia
auzoan daude.

Informazio gehiago nahi izanez geroz, bisitatu webgune hau:

www.tolosaldea.com



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L. H. INSTITUTUA



Ekonomia



Tolosaldea Garatzenen enplegu zerbitzu berria Amasa-Villabonako Katea etxean dago, Mintzolaeren ondoko eraikinean. ASIER IMAZ

Enplegu zentro berria, Villabonan

Tolosaldea Garatzenek Lehiberrin eskaintzen zuen zerbitzua eskainiko du Katea etxean, ostegunero

ASIER IMAZ

Aiztondo bailarako langile eta langabetuek, eta oro har, eskualde osoek, enplegu zerbitzu berria dute Villabonako Katea etxean. Mintzola egoitzaren ondoan dagoen eraikinean zabaldu du bulegoa Tolosaldea Garatzenek, lan munduaren inguruko informazioa banatu eta beharretan denari laguntzeko helburuarekin. Ostegunero egongo da zabalik enplegu zerbitzua, 09:00etatik 13:00etara.

Tolosaldea Garatzenek, orain arte, Lanbiderekin koordinatutako enplegu zerbitzua Ibarako Apatxa Errekan zuen kokaturik, hau da, Lehiberri eraikinean. Aiztondo inguruko herritarrei «urruti xamar» gelditzen zitzaie eta, zerbitzu bera Villabonan jartzea erabaki zuten. Leire Otaegik zabalduko ditu ostegunero enplegu zerbitzuko ateak. Lanbiderekin koordinatuta lan egiten dutenez, honen zerbitzu gehienak eskaintzen dituztela dio Otaegik: «Lan eskaintzak gestionatzeaz gain, Lan-

bideko curriculumak aldatu genitzake; hiru hilero altan egon behar da Lanbiden berriztaturik egoteko, eta hori ere egin genezake...».

Horrez gain, Tolosaldea Garatzenen gainerako zerbitzuak ere Villabonako Katea etxean egongo dira: «Orientazioa eskaintzen dugu, hau da, lana bilatzeko edo prestakuntza edukitzeko laguntza bat eskaintzen dugu; ikastaroei buruzko informazioa, nola bilatu lana, nola egin curriculumak, inguruko merkatua eta enpresen egoera, pertsonak motibatzeke teknikak, teknologia berriak lana bilatzeko nola erabili...».

Leire Otaegiren esanetan lan merkatua ez dago geldirik, horregatik, «oso garrantzitsua» da ahalik eta aukera gehien aztertzea, eta geldi-

rik ez egotea: «Langabetu kopurua lan eskaintza horiekin alderatuz gero, handiagoa da, baina saiakerari jarraipen bat eman behar zaio. Badugu sentsazio bat, zentzu batean, eskaintzen den zerbitzua behar bezala aprobetxatzen ez denarena. Hona etorri eta berak nahi zuen espektatiba betetzen ez denean, jende bat ez da gehiago itzultzen. Gauzak mugimenduan daude, lan eskaintza berriak sortzen dira, enplegu programa berriak sartzen dira, formazio ikastaroak... gero eta informazio gehiago izan hobe da». Enplegu zentroko langilearen esanetan, orduan eta ate gehiago irekitzeak, beldurrak gutxitzea dakar, eta bide horretan hara eta hona ibiltzea «ezinbestekoa» da.

Ordutegia

VILLABONAKO BULEGOA

Ostegunero.

09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik enplegu zerbitzua Katea etxean, Mintzolaeren ondoko eraikinean.

LEHIBERRIKO BULEGOA

Astelehenik ostegunera.

08:00etatik 17:00etara, Ibarako Apatxa Erreka industrigunean.

Ostiralean.

08:00etatik 15:00etara, Ibarako Apatxa Erreka industrigunean.



ataria
internet

Jarraitu albisteak Twitter bidez
@tolosaldeataria



Tolosaldeko Ataria
orrialdeari eman "atsegin dut"



Sartu gure webgunean
ataria.info



Gazteen artean gizonezko langabetu gehiago dago

Abuztuko datuen arabera, Tolosaldean %16,04ko langabezi tasa dago; eskualdeka, Gipuzkoako hirugarren altuena

ASIER IMAZ

Langabeziaren datuek goraka jarraitzen dute, nahiz eta abuztuan eskualdeko herri batzuetan joera hori etetea lortu den. Lanbideko biztanleria aktiboaren arabera, 2013ko abuztuan Tolosaldean 3.303 langabetu zeuden. Horietatik 1.761 emakumezkoak ziren, eta 1.542 gizonezkoak. Datu aipagarrien artean, 25 urtetik beherakoak aipatu behar dira. Adin tarte horretan, hortik gorakoetan ez bezala, gizonezkoak dira langabezia gehien pairatzen dutenak, nahiz eta emakumeak parean ibili.

2012ko urtea Tolosaldeak 3.207 langabeturekin amaitu zuen, Lanbideren iturrien arabera. Ondorengo zazpi hilabeteetan egindako kontaketan, portzentajeak %16ko igoera izan zuen, hau da, epe muga horretan 96 herritarrek galdu zuten euren lanpostua.

Gipuzkoa eskualdeka aztertzen bada, Tolosaldea ehunekotan langabezia gehien duen hirugarren eskualdea da, bataz bestekoaren gaitetik, eta Urola Erdia eta Bidasoaren atzetik. Azken urteetako langabeziaren bilakaeran, aldiz, bosgarren dago. Atal horretan, 2008tik aurtengo abuzturainoko

datuak aztertzen dira. Epe horretan, eskualdean langabezia %91,9 igo zen; Gipuzkoan batz besteko %80,8. Duela urtebete, 2012ko urtarrilaren 31n, langabeziaren bilakaeraren taula horretan Tolosaldea zortzigarren postuan zegoen, lurraldeko batz bestekoa kontuan hartuta, bi puntu gaitetik. Urtebete eta sei hilabete beranduago, bosgarren dago, Gipuzkoako batz bestekoagandik hamaika puntura.

Twitter-ean, Ibai Iriarteren 'txioa'

Atzo arratsaldean, Ibai Iriarte Tolosako alkateak ondorengo txioa zabaldu zuen Twitter-ean: #lanbideren Eskualdetako Enplegu Programa berrian Garapen Agentziak eta formakuntza kanpo, langabezia datuak soilik makilatu nahi dituzte.

Tolosaldeko Atariak adierazpen horren inguruan galdetuta, Eusko Jaurlaritzak garapen agentziak alboratuta uzten dituela salatu zuen Tolosako alkateak: «Udalekin egin nahi ditu enplegu planaren hitzarmenak, baina hauek eskualdekoak dira, ondorioz, garapen agentziak dira eskualdeko ikuspegia dutenak, ez udalak. Baina, garapen agentziak kanpoan uzten dituzte». Horrez gain, enplegu plana bera ere kritikatu du Ibai Iriartek: «Hiru edo sei hilabeteko kontratuak izango dira enplegu plan horien bitartez egingo direnak. Orain artekoak seikoak ziren. Beraz, honen bitartez kontratuak egin nahi dituzte, baina soilik langabezia datuak makilatzeko».

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren enplegu planean hainbat gabezi ikusten ditu Ibai Iriartek, eta hutsune horien salaketan, epe luze-ko enpleguak eta formazioa aipatu ditu Tolosako alkateak: «Ez dago enplegu iraunkorretan inbertitzeko gogorik edota asmorik, ezta formazioan ere. Kanpoan gelditu baita hau ere».



Apatta Erreka industrigunea. A. I.

LANGABEZIAREN BILAKAERA TOLOSALDEAN, LANBIDEKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN ARABERA

HERRIAK	2012/12/31	2013/08/31
ABALTZISKETA	16	14
ADUNA	27	30
ALBIZTUR	9	13
ALEGIA	133	151
ALKIZA	21	18
ALTZO	29	30
AMEZKETA	42	37
ANOETA	157	136
ASTEASU	90	89
BALIARRAIN	7	5
BELAUNTZA	23	24
BERASTEGI	38	63
BERROBI	43	39
BIDEGOIAN	27	32
ELDUAIN	7	7
GAZTELU	7	10
HERNIALDE	16	21
IBARRA	326	318
IKAZTEGIETA	25	28
IRURA	110	126
LARRAUL	15	13
LEABURU	21	22
LIZARTZA	44	42
ORENDAIN	5	4
OREXA	4	4
TOLOSA	1.307	1.344
VILLABONA	440	473
ZIZURKIL	218	210
TOLOSALDEA	3.207	3.303

LANGABEZIA SEXUAREN ARABERA 2013KO ABUZTUA

	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45
TOLOSALDEA	145	780	617	135	852	774

LANGABEZIA GIPUZKOAN ESKUALDEKA

ESKUALDEAK	LANGABETUAK 2013KO ABUZTUA	BIZTANLERIA AKTIBOA	LANGABEZIA EHUNEKOTAN
UROLA ERDIA	2.280	12.783	%17,84
BIDASOA	5.599	35.276	%17,01
TOLOSALDEA	3.303	20.596	%16,04
OARSOALDEA	5.512	34.694	%15,89
DEBABARRENA	3.726	23.585	%15,80
BURUNTZALDEA	5.044	32.245	%15,64
GOIERRI	2.622	17.889	%14,66
UROLA GARAIA	1.675	11.844	%14,15
UROLA KOSTA	2.560	18.979	%13,49
DONOSTIA	11.496	86.223	%13,33
DEBAGOIENA	3.859	32.240	%11,97

Herritarrak lan merkatura bideratzeko ikastaroak urrian izango dira

Tolosaldea Garatzenek lau ataletan banatu ditu tailerrak; izena emateko aukera oraindik zabalik dagoela esan dute

Tolosaldea Garatzenek eskaintzen dituen zerbitzuen artean dago enplegu zentroa. Hala, bertan, hilabete honetarako, eskualdeko langabetuei zuzenduta hainbat ikastaro antolatu dituzte. Orientazio jardunaldi hauen helburua herritarrak lan merkatura bideratzea, eta bertan nola sartu daitekeen erakustea dela azaldu dute eskualdeko garapen agentziatik.

Urriko ikastaroak iragan ostiralean jarri zituzten martxan. Izena emateko, interesatuek bi bide nagusi dituzte. Batetik, posta elektronikoa, lan@tolosaldea.net helbidera idatziz, eta bestetik, telefonoa, 943 654501 zenbakira deituz.

Ikastaroak lau ataletan banatzen dira. Lehen gaia, ikastaroei buruzko informazioa aurkitzen ikastea da. Urriaren 29an egingo dute hurrengo batzarra, 09:30etik 11:30era. Bigarren gaia, lana bilatzeko tekniken ingurukoa da. Urriaren 11n, 15ean eta 18an izango dira ikastaroak, 09:30etik 12:30era. Kasu honetan, aurkezpen eskutitzak eta curriculum-ak nola egin, eta lan merkatuaren konfigurazioa eta bertan nola parte hartu aztertuko dituzte. Hirugarren gaia, lan elkarriketen ingurukoa izango da. Ikastaro hori, urriaren 22an eta 24an izango da, 09:30etik 11:30era. Teoria lantzeaz gain, adibide praktikoak egingo dituzte bi egun horietan. Azkenik, hizkuntzak nola ikasi izango da laugarren ikastaroko gaia. Urriko asteburu guztietan elkartuko dira, baita hilaren 25ean ere, 09:00etatik 12:00etara.

Tolosaldea Garatzenetik herritarrak ikastaro hauetara gonbidatu dituzte. Informazio gehiagorako, eskualdeko garapen agentziarekin harremanetan jartzea nahikoa izango da.

Mauka berria

GAURKO ESKAINTZA

Inguru sorgindu hau ezagutu nahi? Ez galdu eskaintza berezi hau!

GRAXIANA SORGINEN ATERPEA
Lapiztegia kalea
31710 ZUGARRAMURDI (NAFARROA)
Tel.: 699 931 072 - 675 711 498
info@graxiana-aterpea.com
www.graxiana-aterpea.com

Prezioa 35€
Haurrak 25€ (0-3 urte doan)

www.mauka.eu

berria
taldea

ATARIAk harpidedunentzat bi sarrera pare ditu

Urriak 13, igandea
18:00etan
Donostiko Ilunben

Gipuzkoa Basket Club - Cajasol

Saskibaloi partida

Zozketan parte hartzeko deitu GAUR 18:00ak baino lehen
943 65 56 95 telefono zenbakira

sarrerak

Azokak

Zizurkilgo XVI. Azoka Berezia igandean ospatuko da

Zizurkilgo azokaz gain, Anoetako Euskal Jaia eta Leaburu-Txaramako V.Barazki eta Artisau Azoka ere izango dira asteburu honetan.



Arotz-etxean aurkeztu zuten anoetarrek igandean ospatuko duten Euskal Jaia. AMAIA GOIKOETXEA

AMAIA GOIKOETXEA

Azokak izango ditugu urriko bigarren igandeko osagai nagusi eskualdean: Leaburun, Anoetan zein Zizurkilgo izango da bertako produktuen salerosketarako aukera, eta baita haren inguruan osatutako jarduera eskaintza zabalaz gozatzeko ere.

Euskal jaia ospatuko dute anoetarrek: «Udara joan eta iritsi dira udazkeneko doinuak, eta doinu horiek ardatz harturik, euskal musika tresnak izango ditugu gure nortasuna eta naziotasuna aldarrikatzeko gai nagusi» azaldu du Aratz Luisa zinegotziak Arotz-etxean egindako aurkezpenean. Gerturatzekoak diren guztiei baserritarrez jantzita agertzeko eta zorro propioa ekartze-

ko deia egin dute. Anoetarrei ikurri-na eskegitzeko gonbidapena egin zaie: «Espainiar gobernuak bandera jartzera derrigortuko gaitu, beraz, horri erantzunez herritar guztiei dei egiten diegu euren balkoian ikurrina jartzera eta aldarrikatzera».

Bestalde, eta horrelako jai bat arrerera eramateak sortzen dituen lan guztiak burutu ahal izateko, herritarren ekarpena eta parte hartzea beharrezkotzat jo dituzte antolatzaileek; horregatik, lan zerrendatan izena emateko gonbidapena luzatu dute, nahi duenak ahal duen neurrian lagun dezan. Anoetako Itzuli tabernan dago lan zerrenda horretan izena emateko aukera.

Bestalde, frontoian eskainiko den bazkarirako txartelak salgai daude

gaurko eguna bitarte herriko tabernatan.

Bosgarrenez, Leaburun

Bosgarren aldiz antolatu dute Leaburuko Barazki eta Artisau Azoka, eta haren inguruan eskaintza zabala osatu dute beraiek ere. Hurrenaldi-gurdian ibiltzeko aukera izango dute eta talo tailerra ere eskainiko zaie: azken honetan parte hartu nahi izanez gero, mantala edo arropa zaharra ekartzea gomendatu dute antolatzaileek. Herriko trikitilariak eta Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Kolina bertsolariak ariko dira goizean zehar giroa alaitzen; bazkarira ere luzatuko dute beraien saioa. Otordurako txartelak salgai daude Ostatuan ostirala bitarte: hel-

duek 20 euroren truke lortu ahal izango dituzte, eta 16 urtetik beherakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Zizurkilera autobusez

Zizurkilgo XVI. Azoka Berezira gerturatu nahi duena, autobusen doako zerbitzu bereziaz balia daiteke: Bulego Bideko biribilgunetik edo Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara igoko da garraio publikoa egun guztian zehar. 14:30ean bazkaria eskainiko da Zimiterioan, eta han otordua egin nahi duenak txartela eskuratu beharko du Iriarte, Egarrri edo Atxulondo tabernetan. Bihar hasi eta igandera bitarte, emakume baserritarren argazki zaharrak izango dira ikusgai Iriarte Kultur Etxean.

Egitarrak

ANOETAKO EUSKAL JAIA

- 09:30: Herriko txistularien kalejira
- 10:00-13:30: Eskualdeko baserri-tar eta artisauen azoka plazan, dultzainero eta joaldunekin
- Bitartean: Euskal musika tresnei buruzko erakusketa plazan
- 12:00: Jaiaren aurkezpena txalapartariekin, dantzariekin eta Loatz Musika Eskolako ikasleekin.
- Ondoren, postu politenaren sari banaketa.
- Jarraian, ardo dastaketa, Bentaldea Bodegoiaren eskutik.
- 12:30-13:00: Talo tailerra 8-12 urte bitarteko umeentzat
- 13:30: Baserriko produktuen saskiaren zozketa
- 14:00: Herri bazkaria frontoian. Dultzaineroek alaituko dute bazkaloste
- 17:00: Musika emanaldiak: Loatz Musika Eskolako ikasleak: trikitilariak, dultzaineroak, albokariak,...
- Aho-soinujoleak
- Hiahoka taldea
- 19:00: Talogileak eta erromeria plazan Nonnahi taldearen eskutik

LEABURUKO AZOKA

- 09:30-14:00: Azokaren irekiera
- Talo tailerra herriko ume eta gazte-txontzat, taloak egiten ikasteko.
- Herriko trikitilari eta Anjel Mari Peñagarikano eta Sustrai Kolina bertsolariak
- Haurrentzako ibilaldiak zaldi-gurdian
- Bertako produktuekin osatutako bisaki zozkatuko dira
- Bertso-bazkaria, Peñagarikano eta Kolina bertsolariekin eta herriko trikitilarekin.

ZIZURKILGO AZOKA

- 11:00: Azokaren irekiera.
- 12:00: Haurrentzako jokoak
- 13:00: «Baserriko Argia Saria»
- Zizurkilgo baserritarren postu onenari eta kantu-jira
- 14:30: Bazkaria Zimiterioan
- 17:00: Poniak eta aurpegi margoketak
- 18:30: Xuxurlariak Kale Antzerkia, Ados Teatroaren eskutik

Guraso Elkartearen zozketako sarituak

AMEZKETA. Ugarteko festetan egin zen zozketa eta 2.001 zenbakiari egokitu zaio sari potoloa: 300 euro eta asteburuko egonaldia landetxe batean. Bigarren saria Goikoetxea jabetxeak eskainitako bi lagunentzako afaria da eta 3.337 zenbakiak eskuratu du. Saridunek elkartearekin harremanetan jartzeko 619 475 190 zenbakira deitu behar dute.

Mobilizaziorako deia egin du LABek

VILLABONA. Eskualdeko delegatuen batzarra burutuko du LAB sindikatuak gaur Amasa-Villabonan. Ondoren, eguerdiko 12:00etan, mobilizazioa egingo dute Errebote plazan. Negoziazio kolektiboa helburu, hitzarmenen aldeko defentsan langileek borrokan jarraitzeko aldarria egingo dute Villabonako plazara hurbiltzen direnek.

Euskal Herriko mapen erakusketa, ikusgai

VILLABONA. Urriaren 12ra bitarte izango da ikusgai Villabonako Gurea Aretoan Euskal Herriko Mapen Erakusketa. Jose Mari Esparzak eman zion hasiera Nazio Batentzat Mapak hitzaldiarekin eta Euskal Herriari erreferentzia egiteko mendeetan zehar erabili diren hitz, adjektibo eta irudien bilduma erakusten dute mapa horiek.

Kultur aniztasunaren inguruko lehiaketa, abian

ERREDAKZIOA ANOETA

Urtero moduan, argazki lehiaketa antolatu du Anoetako Udalak. Zein aberatsa den kultura desberdinak ezagutzea! gai hartuta, kultur aniztasuna izango du protagonista aurtengoak.

Urriaren 28rako aurkeztu beharko dira argazkiak, eta lagun bakoitzak gehienez 3 irudirekin parte har dezake. Argazki bakoitzarekin tokiko esaera zahar edo esamolde bat aurkeztu beharko da. Baldintzen gaineko xehetasun gehiago daude eskuragai www.anoeta.net/atarian.

Kalean txarangak diskoa grabatuko du udaberrian

Lehen bi sariak jaso dituzte, Iruñeko San Fermin jaietako txarangen lehiaketa batean

ITZEA URKIZU TOLOSA

Kalean txaranga tolosarra grabazio estudioan sartuko da datorren udaberrian, San Fermin jaietan antolatutako lehiaketa bat irabazi ondoren. Iruñeko Maisonnave hotelak eta Ferminmusic ekoiztetxeak antolatutako egitasmoa da, eta lehen bi sariak lortu dituzte.

Txarangako kideek agerraldia egin zuten jasotako sariaren berri emateko, eta «pozik» azaldu ziren: «Orain dela urtebete inguru sortu zen txaranga, eta oinarritzko ideia kalitatezko taldea sortzea izan da hasieratik», nabarmendu zuen Jon Otxoak. Horrekin batera, festa giroa



Txarangako zenbait kide txapelketako garaikurrarekin. I. URKIZU

jartzeari ere garrantzia ematen diote.

Lehiaketan izena ematearen arrazoi nagusietakoa txaranga eza-gutaraztearena izan zen, eta beraz, «ezusteko handia» izan da eurentzat, lehen sari potoloaz gain, Maisonnave hotelak ematen duen lehen saria ere lortzea.

Horrela, datorren udaberri inguruan grabatuko dute diskoa Kalean txarangakoek, eta lehiaketaren oi-

narrien arabera, estudioan 40 orduz lan egiteko aukera izango dute: «Ahalik eta erreperitorio originalena grabatu nahi dugu diskoan, bai guk sorturiko kantuekin, eta baita bertsoekin ere», azaldu zuen Iñigo Alustizak

Aurten hemeretzigarrenez antolatutako txaranga lehiaketa hau, eta Kalean izan da aurkezturiko lehen talde gipuzkoarra; sari hau lortzen ere lehenak izan dira, beraz.

Amalur Mendizabalek salaketa jarri du

Kolpea eman zion ertzaina identifikatu nahian, Donostiako epaitegira jo du

I. URKIZU ANOETA

Joan den astelehenean Guardia Zibilak Herrera-ren Hernaniko egoitza miatu ondoren, Ertzaintzak buruan kolpatu zuen Amalur Mendizabal; zortzi puntu eman zizkioten buruan. Bere senatari txartela erakutsi zuen arren, ez zioten jaramonik egin, eta astebeteren ondoren, herenegun jarri zuen Mendizabalek salaketa, Donostiako epaitegian.

Salaketa bi helbururi begira jarri du Amaiurreko senatariak, besteak beste. Batetik, kolpea eman zion ertzaina identifikatu nahi du, eta horrekin batera, «ezinbestekotzat» du erantzukizun politikoak hartzea.

Honen harira, Tolosaldeko Ataria-rekin pasa den astean izandako elkarrizketan, EAJri kontuak eskatu zizkion anoetarrak: «Ertzaintza izan zen, ni eta han geunden beste batzuk astindu gintuena, eta kontuak EAJk eman behar ditu orain, Guardia Zibila babesteko baitzegoen han Ertzaintza». Halaber, oraindik La-kuako gobernuko «inork» ez diola deitu jakinarazi du.

Abenduan hasiko dira Larramendi auzoko biribilguneko lanak

Pleguak onartuta, enpresek hamahiru egun dituzte, orain, proposamenak aurkezteko

I. URKIZU TOLOSA

Tolosako Larramendi auzoan, Voith-Gorostidi eremuko urbanizazio lanak amaitzeaz dira, eta abenduan bertan hasiko dituzte, Arriarango gasolindegia alboko biribilgunea egiteko lanak.

Tolosako hirigintzako udal plan-gintzako puntuetako bat da biribilgunearena, eta pasa den uztailan hitzarmena sinatu zuten Tolosako Udalak eta Gipuzkoako Foru aldundiak, finantziario akordioa zehazteko. Joan den ostiralean, berriz, Tolosako udal gobernuak baldintza pleguak onartu zituen, eta orain, proiektua gauzatzeko interesa duten enpresek beren proposamenak

aurkeztu beharko dituzte; 13 egun izango dituzte horretarako.

Biribilgunearen lanak bukatzen direnean, eremu horretako segurtasuna hobetuko da, besteak beste, udalaren esanetan: «N-1ean Donostiatik Tolosara datozen ibilgailuek abiadura nabarmen murriztuko dute, eta gurutzabideak saihestu egingo dira.

Trafiko kontuez gain, aurrera begirako beste hainbat proiektuei bidea erraztuko die biribilgunek, Larramendi eta Belate elkartuko lituzkeen Oria gaineko zubia kasu. Horrez gain, Autobia Irla izeneko industri eremua garatzen denerako ere sarbidea egokituko du biribilgunek, eta azkenik, Uzturre kalea bi noranzkotan jartzea ere ahalbidetuko du.

Lan hauek Gipuzkoako Foru Aldundiak, Isla Autobiako enpresak eta Larramendi-Voith eremuko urbanizazioak finantzatuko ditu.

Irudia Ibarra



Hanot Karrerak zinegotzi kargua hartu du

Ibarrako Udalean zinegotzi berri bat dago atzoko osoko bilkura egin eta gero. Hanot Karrerak hartu du kargua, Bildu taldean. Iñaki Mujikak utzitako lekua hartu

du Agirrek. Kargua zin egiterakoan, horretarako dagoen testu ofiziala legez behartuta irakurri zuela adierazi zuen Agirrek. I. GARCIA LANDA

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SL
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Zuzendaria: Ainhoa Oartzabal.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
E.P: ataria@ataria.info **Webgunea:** ataria.info
Papereko editorea: Eneritz Maiz.
Interneteko editorea: Imanol Garcia Landa.

Irratiko editorea: Jon Miranda.
Kudeatzailea: Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818. tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.info
Villabona-Alzondo: 687 410 022. villabona-aitzondo@ataria.info
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.info

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

• Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



**Ataria-k
Bai
Euskarari**



Gipuzkoako Foru Aldundia



Jendearen parte hartzearekin elikatuko da 'Komunitatea' foroa. **TOLOSALDEKO ATARIA**

Herritarren parte hartzea sustatzeko foro irekia

Ataria.info webgunearen erabiltzaileek informazioa, irudiak nahiz beren iritziak zintzilikatu eta zabal ditzakete.

AINHOA OIARTZABAL

Kazetariekin batera herritarrek osatuko dute Ataria. Batez ere, Ataria.info atari digitala. 'Komunitatea' izeneko atal berezia baitu Tolosaldeko atari digitalak, Ataria.info-ren erabiltzaileen taldea. Codesyntax enpresak garatu du webgunea eta antolatu du komunitatea artikulatzeko modua. Orain, Tolosaldeko herritarren txanda heldu da.

Hasi berria izanik, dozena bat lagunek eman dute oraingoz Komunitatean kide izateko izena. Besteak beste, Josu Amilibia Adunako alkatea, Txarli Gesteira 'Galtzaundi' aldikarian kolaboratzaile izan dena edota Bonberoenea eta Udaberri

dantza taldea daude. Webgunea berria izanik, zenbait erabiltzailek arazoak izan dituzte erregistratzeko orduan. Halakorik gertatuz gero, dei ezazue 943655695 telefono zenbaira edota idatzi ataria@ataria.info helbide elektronikora.

Nola egin kide?

Komunitatearen kideak dira izen-abizena duten erabiltzaileak, anonimoak ez diren taldeak. Horiek, argazkiak, artikulatuak, iruzkinak eta bestelako edukia gehitzeko aukera izango dute Ataria.info honetara. Sare sozial bidez egin zaitezke Komunitateko kide. Sortu zure erabiltzaile perfila eta, ondoren, lotu kontu hori sare sozial batekin (facebook

edo twitterrekin, momentuz). Sare sozial horietan kontua baduzu, automatikoki agertuko zara 'kide' modura sare horretan dituzun datuekin (argazki eta izen-abizenekin).

Bestela, Ataria.info-n bertan zuzenean eska dezakezu 'kide' egitea. Bete zure izen-abizenak eta biografia atala eta igo zure argazki bat. Ondoren, zure perfillean eskatu ataria.info-ri kide izaera. Kudeatzaile batek konprobatuko du benetako datuak eman dituzula eta onartuko dizu eskaera.

Eta, hortik aurrera, zure iruzkinak, argazkiak, bideoak... edo zure kanpoko bloga Ataria.info-era lotzeko aukera izango duzu. Behin izena emanda, edozer esan al dezaket? Gogoratu arau simple hauek: Ataria.info-n parte hartzeko erregistratu beharra dago; ez dira irainak onartuko; eta noski, euskaraz idatzi behar da.

Agenda

DEIALDIAK

AMASA-VILLABONA. Mintzolako jardunaldien barruan, Pio Perez, Eric Dicharry eta Eli Perez ariko dira, eta sarrera doan izango da. 19:00etan, Joxe Zapirainen bertso-malkoak. Edo nola arindu ari-maren sufrimenduak bertsoen bidez. 19:30ean, Hezkuntzaren ekologia. Antropologo bat bertso-eskolan, eta 20:00etan, Joxepa Antoni Xenpelar. 20:30ean, mahai ingurua, Pio Perez, Eric Dicharry eta Eli Perezekin.

AMASA-VILLABONA. LAB sindikatuko delegatuen batzarra burutuko dute Villabonan. Negoziazio kolektiboa. Hitzarmenen defentsan langileok borrokan izango da jorratuko duten gaia. Ondoren, mobilizazioa egingo dute Villabonako plazan, 12.00etan.

ANOETA. Anoetako Udalak argazki lehiaketa abiatu du, eta hilaren 28rako argazkiak aurkeztu beharko dira. Aurten aukeratu duten gaia: *Zein aberatsa den kultura desberdinak ezagutzea!* izan da.

IRURA. 2013-2014 ikasturterako ikastaroen eskaintza prest du Irurako udaleko kultura, gazteria eta kirol sailak. Izena emateko udaletxeak Peio Arrese Kalea 1ean duen Gazte eta Kulturunea eraikineko bulegora joatea derrigorrezkoa da. 09:15etik 12:45era eta 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiagorako 943 69 26 74 telefono zenbakira deituz edo kultura@irura.net helbidera idatziz eskura daiteke.

LEABURU-TXARAMA. Igandean, hilak 13, V. Barazki eta Artisau Azoka egingo dute herrian. Bazkaria izango da, eta txartelak ostirala baino lehen erosi beharko dira

herriko Ostatuan. Helduek 20 euro eta 16 urtetik beherakoek 10 euro ordaindu beharko dute.

TOLOSA. Tolosako Atsedena taldeak hilaren 18, 19 eta 20rako irteera antolatu du Hernialdera. 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendua izango da, eta interesatuek izena emateko 635 74 64 47 telefono zenbakira deitu beharko dute.

TOLOSA. Oargi mendi taldeak irteera antolatu du, hilaren 13an, Andarito medira (1076m). Urkulu urtegitik igoko dira, eta lau orduko ibilbidea izango da. 08:00etan abiatuko dira Usabal kiroldegitik. Izena emateko info@oargi.org edo 688 69 86 42 telefono zenbakira deituz.

ERAKUSKETAK

TOLOSA. GKO galerian, Pili Aguadoren erakusketa dago ikusgai.

AMASA-VILLABONA. Euskal Herriko Mapen erakusketa egongo da ikusgai urriaren 12ra arte Gurea antzokiko aretoan, Jose Mari Esparzaren eskutik. Euskal Herriari erreferentzia egiteko mendeetan zehar erabili diren hitz, adjektibo eta irudien bilduma da mapa horiek erakusten dutena, eta neurri batean munduak Euskal Herria nola ikusten zuen islatzen duena. Asteazkenean, 18:00etatik 20:30era egongo da zabalik, eta larunbatean 10:30etik 13:00etara.



Farmaziak

Gaur

Tolosa: Egunkoia: Morant, R. Zabalarretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 9436724 38.

**Urtebetetzeak
Ezkontzak
Jaioberriak
...**



AGURRAK

943-65 56 95

ataria@ataria.info

San Esteban 20 • TOLOSA